



**Beasaingo** Udala

Beasainen, bi mila eta hemeretziko urtarilaren hogeita lauan

### **BILDURIK**

Alde batetik, BEASAINGO UDALA Aitor Aldasoro Iturbe jaunak ordezkatura, Beasaingo Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, KANTUJIRA kantu taldea, Luis Mari Jauregui Estala (NA 72414740E) jaunak ordezkatura.

### **AURREKINAK**

I. Kantujira kantu taldeak interesa duten kultur jarduerak egiten ditu.

II. Kantujira kantu taldeak euskal kantagintzaren sustapenean biziki laguntzen du.

III. Hitzarmen honen helburua Kantujira kantu taldearen eta Udalaren arteko harremana erregulatzea da, 2019. urtean hainbat jardura egiteko.

### **BALDINTZAK**

LEHENA.- Kantujira kantu taldeak 2019. urtean hainbat irteera antolatzeke konpromisoa hartzen du, ondoren ekintzen egutegia

- ◆ Hilabetero azken ostiraleko irteera Igartzako Monumentu Murtzik irten eta Bideluzera bitarteko kalejira kantuan.
- ◆ Bi hilabetez behin eguneko zentroa joango dira 16:00etatik 17:00etara.
- ◆ Urtarrilean Erregeen zamakadako saioa.
- ◆ Urtarrilaren 25ean kantujira saioa
- ◆ Otsailaren 4an, Santa Agedako eskea.
- ◆ Otsailaren 22an kantujira saioa.
- ◆ Martxoaren 29an kantujira saioa.
- ◆ Apirilean, Arangoiti egoitzako saioa.
- ◆ Apirilaren 26an kantujira saioa.
- ◆ Ekainaren 7an, Loinatzetako saioa.
- ◆ Ekainaren 23an, San Joanetako saioa Igartzan.
- ◆ Irailean Lemniskata elkartearekin elkarlaneko saioa.
- ◆ Irailaren 27an kantujira saioa.
- ◆ Urrian, Udazken Kulturalaren barruan txistularien alardeko saioa.
- ◆ Urriaren 25ean kantujira saioa.



- ◆ Azaroaren 29an kantujira saioa
- ◆ Abenduan Euskararen eguna eta Liburu azoka
- ◆ Abenduan, Gabonetako eskea.

**BIGARRENA.-** Beasaingo Udalak jarduera horiek antolatzen lagunduko dio behar dituzten giza-baliabideak koordinatuz, Musika eskolako musikariak zein Goizeresi txistularien taldea eta kantuen fotokopiak ateraz.

**HIRUGARRENA.-** Kantujira kantu taldeak bere partaidetza beharrezkoa den beste edozein ekitalditan lagunduko du.

**LAUGARRENA.-** Kantujira kantu taldeari dagokio hitzarmendutako jardueri beharrezkoa den publizitatea egitea eta Beasaingo Udalaren laguntza (eta logotipoa) aipatzea beraiek antolatutako jardueri buruz egiten dituzten prentsarako ohar guztietan. Era berean, leku duin eta ikusgarrian aipatu beharko dira Beasaingo Udalaren laguntza, kartel, aldizkari, esku-egitarau, e. a., motatako zabalkunde-bitartekoak erabiltzen direnean.

**BOSGARRENA.-** Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, idatziz sortzen diren material guztietan (kartel, diptiko, eskuliburu, apunte etab.) euskarari lehentasuna emango zaio eta materialen zirriborroak inprimategira eraman aurretik Udaletxera ekarriko dira testuen hizkuntz egokitasuna eta proportzioen zuzentasuna ziurtatzeko. Aurkezpenetan eta antzekoetan ere euskarak lehentasuna izango du.

**SEIGARRENA.-** Kantujira kantu taldeak, publizitate bidez finantzatzeko dituen diptiko edo beste edozein inprimakiren kasuan, dendariak euskarazko publizitatea eros dezaten ahaleginduko da eta, bestela, publizitatea ele bietara jasotzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartzen du.

**ZAZPIGARRENA.-** Udalak hizkuntzari dagokion arlo guztietarako bere laguntza eta lankidetzak eskainiko ditu.

**ZORTZIGARRENA.-** Beasaingo Udalak beharrezkoak diren Udal zerbitzuak eskaintzen jarraituko du, esandako jarduerak ongi burutuko direla ziurtatzeko eta Kultura Batzordeak beren antolaketa gainbegiratu ahal izango du.

**BEDERATZIGARRENA.-** Hitzarmen hau betetzeari dagokion guztirako, Kantujira kantu taldeak, Alkateak horretarako jartzen duen edo dituen pertsona edo pertsonekin izango ditu zuzeneko harremanak.

**HAMARGARRENA.-** Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna babesteko klausula. Elkarteek berdintasuneko irizpideak (Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta hau aldatzen duen otsailaren 16ko 3/2012 Legea) kontuan





**Beasaingo Udala**

hartuko dituzte bai elkartearen barruan bai eta sustatzen dituzten proposamenak gauatzeko garaian ere.

**HAMAIKAGARRENA.-** Datu pertsonalak babesteko klausula.

- A. 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez, alegia, Datu Pertsonalak Babestekoan, alde bakoitzak erasandakoen baimen informatua lortzeko ardura izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean beharrezkoak diren beren datu pertsonalen tratamendurako. Era berean, alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeko ardura izango du.
- B. Elkarteak Beasaingo Udalari datu pertsonalen lagapena eginez gero, uneoro, beren datu pertsonalak lagatzeko erasandakoen baimen informatua duela bermatu beharko du.
- C. Alde bakoitzak egin litzakeen indarrean dagoen datuak babesteko araudi honen ez-betetzeetatik letozkeen ardurak bere gain hartuko ditu.

**HAMABIGARRENA.-** Aurreko edozein baldintza behar bezala ez betetzeak hitzarmen hau berrikustea ekarriko du.

Eta esandako guztiarekin ados egonik, bildutakoek dokumentu hau urte baterako sinatzen dute bikoizturik, goibururen aipatutako data eta lekuan.



